

Olite / Erriberry

Nafarroako Erresuma  Reyno de Navarra

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra  AGENDA 2030



- 1. Errege Jauregia
- 2. Jauregi Zaharra
- 3. Andre Maria Eliza
- 4. Kapitelen Dorrea - Karlos III. Plaza
- 5. Erdi Aroko Galeriak
- 6. San Pedro Eliza
- 7. San Frantzisko Komentua
- 8. Santa Klara Monasterioa
- 9. Nafarroako Mahastiaren eta Ardoaren Museoa
- 10. Santa Brigida Ermita

- Turismo Bulegoa**
Teobaldoen plaza, 10 · 31390 ERRIBERRI
(+34) 948 74 17 03 · oit.olite@navarra.es
www.turismo.navarra.es
- A Udala/Aguazila (948 74 01 75)
 - Posta-etxea (948 74 05 82)
 - Kultura-etxea - Liburutegia
 - S.O.S. Nafarroa (112) · Osasun-etxea (948 74 17 01)
 - GC Guardia Zibila (948 740 007)
 - Farmaziak
 - DYA DYA (948 74 05 07)
 - WC Komun publikoak
 - Tren-geltokia
 - Autobus-geralekuak
 - Gasolindegia
 - P Aparkalekia
 - Autokarabana gunea
 - Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekia
 - T Taxiak (948 74 01 43 / 608 77 78 80)
 - Haur-parkea
 - Askaldegia
 - Upategiak
 - Monumentuak
 - Harresiak eta barruti erromatarra
 - Harresiak eta Erdi Aroko barrutia
 - Jauregiak
 - Merkataritza-kale nagusiak
 - Zamalanak
 - Ardotegia / Delicatessen
 - @ Ciber "Camelot"

NON LO EGIN

H1	Hotela*** Parador Príncipe de Viana	Plaza de los Teobaldos, 2	948 74 00 00
H2	Hotela**** La Joyosa Guarda	Rúa de Medios, 23	948 74 13 03
H3	Hotela** Casa Zanito	Rúa Mayor, 16	948 74 00 02
H4	Hotela** Merindad de Olite	Rúa de la Judería, 11	948 74 07 35
H5	Hotela** Ducay	Rúa de Medios, 1	948 74 13 00
H6	Hotela*** El Juglar	Rúa Romana, 39	948 74 18 55
Hs1	Landa-hotela Villavieja	Rúa Villavieja, 11	948 74 17 00
AT1	Apartamento Casa Ollaga	Rúa del Fondo, 18	688 64 07 71
AT2	Apartamentua Lorione	Rúa Mayor, 30	948 74 05 40
AT3	Apartamentua La Tesendería	Rúa Romana 8	687 21 62 07
AT4	Apartamentua El Silo	Avda. Beire, 44	948 71 20 29
AT5	Apartamentua Olite	C/ Tempranillo, 20	620 95 54 00
AT6	Apartamentua La Torre	C/ San Francisco 5	628 98 70 48
AT7	Apartamentua Castillo De Olite	PL de la Rueda 2, bajo..	625 12 14 58 / 679 57 33 23
AT8	Apartamentua La Rueda	C/ Rincón de Racioneros 10	620 03 24 36
AT9	Apartamentua Ducay	Rúa Tesendería 11	948 74 13 00
AT10	Apartamentua El Enclave	C/ Falconera 1, 2º	620 19 15 90

VT1	Etxebizitza turistikoa La Nava	Rúa Romana, 42	660 02 44 01
VT2	Etxebizitza turistikoa Los Olivos	Calle Arenales, 12	620 25 41 99
VT3	Etxebizitza turistikoa Mirador de la Reina	Rúa Mayor 19	948 71 24 55
VT4	Etxebizitza turistikoa Rosaenea	C/ Tempranillo 67	628 86 66 26
VT5	Etxebizitza turistikoa Ronda del Castillo	C/ La Estación 5	669 99 33 42
C1	Kanpina Ciudad de Olite	Ctra. NA-115, Tafalla-Peralta	948 74 10 14

NON JAN

1	Parador Príncipe de Viana	Plaza de los Teobaldos, 2	948 74 00 00
2	Casa Zanito	Rúa Mayor, 16	948 74 00 02
3	Erri Berrí	Rúa del Fondo, 1	948 74 11 16
4	Casa del Preboste	Rúa Mirapies, 8	948 71 22 50
5	Gambarte	Rúa del Seco, 15	948 74 01 39
6	El Rincón de la Joyosa	Rúa de Medios, 23	948 74 13 03
7	Merindad de Olite	Rúa de la Judería, 11	948 74 07 35
8	Ducay	Rúa de Medios, 1	948 74 13 00
9	Paisal	Ctra. NA-115, Tafalla-Peralta	948 74 12 60
10	La Muralla	Rúa Mayor, 31	948 74 15 10

TURISMO-JARDUERAKO ENPRESAK
 **Guiarte Servicios Turísticos:**
 948 74 12 73
 www.guiartenavarra.com

BESTE BATZUK
ALSA autobusak: 902 42 22 42
 www.alsa.es



+info Erriberry



MAHATS-BILKETAREN JAIA

HIRIAREN JATORRIA

Erriberri hiria Nafarroako erdigune geografikoan dago, eta hantxe dago komunitateko monumentu-multzo nabarmenetako bat. Jatorrizko biztanlegunea erromatarren garaikoa da. I. mendean eraikitako esparru harresitu bat da, 20 dorrez inguratuta dagoena. Eremita horri **barruko esparru** esaten zaio. Geroago, 1147tik aurrera, eta Gartzia Ramirez erregeak Lizarrako forua eman zionez Erriberri, biztanlegunea nabarmen handitu zen; hori dela eta, barruko esparruaren mugak hautsi, eta hiria hegoalderantz hedatu zen. Hartara, esparru harresitu berria sortu zen: **kanpoko esparrua**. Erromatarren harresitik, zenbait dorre eta mihiseren bat gelditzen dira. Erdi Aroko harresitik, aldiz, mendebaldeko bi babes-dorre, kapitelen edo erlojuaren dorrea, hiri-erretarako portaleetako baten bat, eta kaleen izenak.

Hiriko kaleek berek Erdi Aroko ukitua dute, eta garaiko izen adierazgarriak: Judutegiaren kalea, hirian bizi izan zen komunitate judu handiagatik; Tafureria kalea, joko-etxea zegoelako; Rincón de Racioneros, Villavieja kalea, Tesenderia kalea... Horrelako ugari daude, Erdi Aroko Erriberriko jendearen lanbidea eta bizimodua adierazten dituztenak. Gainera, kale horietan badira jauregi errenazentista eta barrokoak ere, armari handiekin eta zurezko, adreiluzko edo harrizko teilatu-hegal oparoekin. Horien artean, Arradako markesaren jauregia gailentzen da; aurrealdea harlanduzkoa da, adreiluzko atikoarekin, eta, horren gainean, zurezko teilatu-hegala dago.

ERREGE-ERREGINEN EGOITZA

XIII. mendetik aurrera, Nafarroako errege-erreginen egoitzetako bat izan zen Erriberri, baina Karlos III.a Prestuak (1337-1425) gogokoen zeukan egoitzatzat hautatu zuen. Hala, sekulako ospe eta handitasuna eman zizkion, garai hartako Europako gorteetan ohikoa zen moduan. Erriberriko Errege Jauregia loraldi horren lekuko dugu, 1925ean monumentu nazionalizat jo zutena.

ARDOAREN HIRIBURUA

Ardogintzak aipamen berezia merezi du. Erriberriko klima mediterraneo epela nekazaritzaren aliatu da. Ardoari lotutako tradizio garrantzitsua du hiriak, eta ibilbide luzea egina duten zenbait berri diren upategi eta kooperatiba asko daude. 1982an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa (EVENA) ezarri zuen hirian, mahastia lantzeko eta ardoa egiteko teknikak aztertu, esperimentatu eta haien berri hedatzeko. Orobat, Nafarroako Jatorri Deituraren Kontseiluak eta Ardoaren Kofradiak Erriberri dituzte egoitzak. Hori dela bide, **Erriberri Nafarroako ardoaren hiriburua dela esaten da**.

Erriberriko ardoek merezitako ospea dute. Hainbat ardo-mota ekoizten dira, denak jatorri-deiturakoak: zuriak, gorriak, beltz gazteak, onduak, erreserbak, erreserba handiak... Moskatelak ere oso ezagunak dira.

JAIK ETA FOLKLOREA

Erriberri, jauregia eta karrika harriztatu meharrak lagun, ingurune ezin hobea eskaintzen du Erdi Aroko giroa sortzeko. **Erdi Aroko jaiak** xede horrekin egiten dira; horietan, milaka lagun biltzen dira abuztuko asteburu batean. Pregoia Errege Jauregian irakurri, eta segituan hasten da zalaparta. Jarraian, merkataria, artisauak, sorginak, txotxongilolariak, klerikoak, trobadoreak, zaldunak, arkulariak, malabaristak eta zaldikoak behar bezala apaindutako kaleak alaitzen hasten dira. Kaleetan zehar, Erdi Aroan girotutako azoka ipintzen da, non artisauen askotariko produktuak eskaintzen baitzaizkie bisitariak. Honatx programaren barnean dauden ekitaldiak: Erdi Aroko bazkariak nahiz afariak herriko jatetxeetan, errege-erreginen eta printze-printzesen desfileak, komediak, falkoneroen eta arkularien erakustaldiak, eta hitzaldi-zikloak.

Urtean zehar, badira bisitariak gonbidatzeko beste jai-topaketa batzuk. Maiatzaren 22tik gertuen dagoen larunbatean, Santa Brigida ermitara joateko erromeria antolatzen da, Monte Encinar parajearen. Apirilaren 25aren ondorengo igandean, Erriberriko eta Erdialdeko herritarrek Uxueko erromerian parte hartzen dute. **Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia** uztailaren eta abuztuan egiten da, eta izen handiko konpainiek hartzen dute parte. Abuztuaren 26an, Ama Birjina Koleraren ospatzen da, tokiko festa handia. **Mahats-bilketaren jaiak** iraileko lehen hamabostaldiko igande batean egiten da; ekitaldi horren bidez, Nafarroako Ardoaren Kofradiak abian jartzen du mahatsak biltzeko urteko kanpaina.

Herriko festak irailaren 13tik 19ra bitartean izaten dira.



1. ERREGE-JAUREGIA



2. JAUREGI ZAHARRA



3. ANDRE MARIA ELIZA

Etorri Erriberri

1. ERREGE-JAUREGIA

Errege Jauregia Karlos III.aren plazan dago, eta Jauregi Zaharraren (2) handitze-lanen ondorioa da. Karlos III.a Prestuak agindu zuen eraikuntza berria egitea; XV. mendekoa da, eta estiloa gotiko zibil frantsesa da. Harrizko horma handiz osatuta dago, eta horiek sargune eta irtenguneen perimetro bat eratzen dute. Izkinetan, zirkulu-formako dorretxoak daude, arbelezko estalkia dutenak. Garai batean, ordea, jatorrizko teilatua berunezkoa zen. Barnealdera sartzeko, patio handi bat zeharkatu behar da gaur egun, laranjondoen lorategia zena lehen; ondano, txoritegiaren eta masustondoen patioak daude. Atzean, Jauregi Berriaren erdiko nukleoa dago; han, solairu nagusian, errege-erreginen ganberak daude. Lehen ganberatik, erregearen galeriara iristen da; eta erreginaren ganberatik, berri, laranjondoen edo erreginaren lorategi txikira. Ganberak dauden erdiko nukleoaren gainean dorreen siluetak ikusten dira: dorre nagusia, hiru koroena, lau haizeetako eta zaindariarena.

Behe Erdi Aroan, Erriberriko Errege Jauregiak oparoaldia izan zuen, eta Europako luxu handieneko gorteen mailara ere iritsi zen. Dokumentazioaren arabera, jauregi apainketa luxu-luxuzkoa zen: igeltsutegi, alikatatu eta lauza beiratzeko lan delikatuak, beirate polikromoak, eta urre-koloreko kasetoidurak eta teilatuak. Horrez gain, lorategiz hornitutako terrazak, iturriak eta askotariko jatorriko landareak zeuden. Jauregian parke zoologiko bat ere egon zen. Lehoientzako lehoitegi bat eraiki zen, eta jakina da gameluak, bufalo afrikarrak, jirafa bat, urtxintzak, papagaiak eta hegazti exotikoak egon zirela gaztelutik gertu. Bestelako dibertimenduak ere ohikoak ziren; esate baterako, pilota- eta erraketa-jokoak. Ezer ez da gelditzen horretatik.

Eraikuntzaren handitasuna eta luxua direla eta, XV. mendeko bidaia-ari aleman batek honako hau adierazi zuen horri buruz: "Ziur nago ez dagoela hau baino jauregi edo gaztelu ederragoa duen erregerik... Ezin liteke esan eta ezin liteke imajinatu zeinen zoragarria eta galanta den jauregia". Gaztelaren anxioaren osten (1512), jauregia utzi egin zuten, eta 1813an eragindako sute batek are neurri handiagoan hondatu zuen. Oraingo itxura lortzeko, Javier eta Jose Yáñez arkitektoek zaharberritze-lanak egin zituzten 1937tik aurrera.

2. JAUREGI ZAHARRA

Gaztelu-jauregiaren alderrik zaharrena da, eta gaur egun, Teobaldoen plazako turismo-paradorea da. Erromatarren garaiko esparruko gotorlekuaren zati bat zen, eta Nafarroako errege-erreginek jauregi moduan berrerabili zuten. Garai hartako eraikuntzatik kanpoko hormak besterik ez da gelditzen, izkinetako dorreekin. Fatxadan, bi leihate gotiko, Evreuxko dinastiako bi armari, ate nagusia –errenazentista– eta talaiaren edo zikoinaren dorrea nabarmentzen dira. Jauregi Zaharraren eta Andre Maria elizaren artean, San Jorgeren kaperaren hondakinak daude; Leonor erreginak, Karlos III.a Prestuaren emazteak, abiarazi zituen kaperara hori eraikitzeko lanak 1399an.

3. ANDRE MARIA ELIZA

Jauregiaren ondoan, Andre Maria eliza dago, XIII. mendeko eraikin gotiko bat. Portada Nafarroako eskultura gotikoko multzo garrantzitsuenetako bat da. Gutxi gorabehera, 1300ean amaitu zuten, eta Parisko Notre Dame katedralaren eragin argia du. Zehazki, zortzi arkiboltak eta oso atezango zein ateburu apainduen gainean dagoen erdiko tinpano batek osatzen dute. Arkeria batzuek inguratzen dute, zeinetan apostoluen eskulturak baitaude. Duela gutxi eginiko zaharberritze-lanen bitartez, fatxadaren jatorrizko polikromiaren zati handi bat aurkitu da. Horrek egundoko balioa ematen dio, portada gotiko gutxi eutsi baitiete jatorrizko koloreei. Elizpea 1432an gehitu zen; sarrerako arkuan, eskultura bana daude aldeetan: Zuria Nafarroakoa eta Ama Birjina haurtxoarekin. Jehan de Lome eskultura-maisuaren tailerlean egin omen ziren mentsula batzuen gainean daude, eta, horietan, Zuria andreamen eta Joan II.a Aragoikoaren armak agertzen dira.

Barrualdea soila da, eta estilo errenazentistako erretaula nagusia azpimarratzekoa da, italiar, flandriar eta alemaniar pinturaren eragina duena. Egilea Aragoiko Pedro de Aponte izan zen, eta erretaula hura hil baino pixka bat lehenago ipini zuten, 1528an.

Erretaulan, Ama Birjina eta haurtxoaren tailla gotikoa gailentzen da, eta olio-pinturako 28 taula daude, zeinetan Jesusen eta Andre Mariaren bizitzaren pasarteak irudikatu baitira. Orobat, heriotza onaren Kristoren irudi bat ere badago. XIV. mendearen erdialdeko tailla gotiko bat da, jada desagertua den San Lazaro ermitakoa omen zena. Burua alde batera du, gorputzerantz bideratuta, eta saiheutsak nabarmendu dizkiote. Garbitasunaren oihalaren izurrak azpimarratzekoak dira.

4. KAPITELAREN DORREA - KARLOS III.AREN PLAZA

Errege Jauregiaren aurrean, Karlos III.aren plaza luzea dago, erromatarren barruko esparruaren eta Erdi Aroko kanpoko esparruaren artean. Plaza horretan dago kapitelen edo erlojuaren dorrea, erromatarren eremura sartzeko portaleetako bat zena.

Erdi Aroan, produktuen salmenta kontrolatzeko postu baten moduan erabili zuten, eta, geroago, hiribilduko kontzejuaren egoitza izan zen. Erlojuaren dorre ere esaten zaio, penintsulako lehen kanpai-erlojuak goialdean izan baitzuen XIV. mendean. Badira beste eraikin nabarmen batzuk ere; adibidez, udaletxea. Nafarroako Victor Eusa arkitektoaren eraikin moderno bat da, XVI. mendetik XVIII. mendera arteko nobleen etxe handien irudiarekin nolabaiteko lotura duena.

5. ERDI AROKO GALERIAK

Plazako zoruaren pean, Erdi Aroko bi galeria paralelo daude; murrak komun batek batzen ditu, eta zenbait parpain-arkuk sostengatzen. XIV. mendekoak dira, baina oraingo ez dakigu zertarako eraiki zituzten. Gaur egun, Erriberriko antzinako gorteari buruzko erakusteta bat dago han. Zenbait indusketatan, galeria txikiak topatu dituzte hiriko beste toki batzuetan.

6. SAN PEDRO ELIZA

Kale Nagusiari jarraituz, San Pedro eliza dago, estilo erromanikoan hasi eta garai barrokoan handitutako tenplu bat. Multzo horretan, portada eta klaustro erromanikoak gailentzen dira. Klaustroan, Genesiko eszenekin apaindutako kapitel baliotsuak daude oraindik. Nahiz eta ez dagoen Donejakue bidearen barruan, Erdi Aroan erromes asko desbideratzen ziren loratzen ari zen Erriberri hirira joateko, Nafarroako gortearen egoitza zen eta. Erromesek Erriberri utzitako arrastoa elizetako apaintetan ikusten da, bereziki San Pedro elizan; bertako dorre-orratza sekulakoa da (herriko altuena), eta gurutzaduraren inguruan dago, gerez haizetsu bat tontorrean duela. Halaber, elizaren barruan Santiagoren tailla bat dago, erromesmakila eta guzti. Borgoinar estiloa du, eta esaten dute Nafarroako ederrenetako bat dela.

Dena den, elizaren barruan zenbait estilo ikusten dira: erromanikoa, gotikoa eta barrokoa. Santiagoren taillaz gain, aipatzekoak dira Enequo Pinel notarioaren botozko hilarria eta Tuterako Vicente Berdusaren pinturak ikusten diren erretaula nagusia.

7. SAN FRANTZISKO KOMENTUA (kanpoaldea ikusteko bisita)

Harresien kanpoaldean dago. Kondairaren arabera, San Frantzisko Asiskoak berak sortu zuen, Erriberri geldialdia egin omen zuen-eta Santiago Konpostelakora bidean. Gaur egun ikusten dena XVIII. mendeko berreraikuntza da, nahiz eta oraindik ere XV. mendeko jatorrizko portada dagoen. Barnealdean, Ama Birjina Kolerarenaren irudia dago.

8. SANTA KLARA MONASTERIOA (kanpoaldea ikusteko bisita)

San Antonen ordena ospitalekoaren garai bateko komentua, non erromesei arreta ematen baitzitzairen. Monasterioaren multzoan, eliza bereziki interesgarria da. Berez, XIII. mendean eraiki zuten, eta XVII. eta XVIII. mendeetan berri. Aipatzekoak dira Santa Engraziari eskainitako erretaula rokoko eta Kristo hispaniar-flandriarra.

9. NAFARROAKO MAHASTIAREN ETA ARDOAREN MUSEOA

Aingeru Sainduaren garai bateko jauregian dago; hau da, Teobaldoen plazan dagoen XVII. mendeko eraikinean. Museo didaktiko bat da, eta teknologia multimedia erabiltzen da han; lau solairuk osatzen dute, eta horietako bakoitzean ardogintzaren alderdi bat jorratzen da: ardoaren historia, mahastizaintza, enologia, eta askotariko bitxikeriak dastatze bat behar bezala egiteko.

10. SANTA BRIGIDA ERMITA (kanpoaldea ikusteko bisita)

Erriberritik 3 kilometroa, Monte Encinar parajearen. XIII. mendearen hasierako eraikin gotikoa, fresko-sorta bat gordetzen duena. Artadua dago ermitaren inguruan, eremu hartako paraje natural interesgarrienetako bat.